

2011KO MAIATZAREN 13AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hamahirua.

HILABETEA: Maiatza.

URTEA: Bi mila eta hamaika.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko hamarrak eta erdietan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe
Fernando Boada González
Josi Insausti Mujika
Begoña Lasa Royuela
Julio Herreros Serna

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2011ko apirilaren 13ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute aktarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- ZERBITZUAK ESLEITZEA

Beasaingo Udalaren tributuen eta zuzenbide publikoko beste diru sarreren betearazpideko zergabilketarako elkarlanak kontratatzea.

Ezagutzera eman da, 2011ko maiatzaren 6ko Kontratazio-Mahaiaren proposamena, hau da:

“I.- Gobernu Batzordeak 2011ko martxoaren 14an egindako bileran ondorengo erabakia hartu zuen:

Deialdi publikoa egitea eta baldintza plegua onartzea, Beasaingo udalaren tributuen eta zuzenbide publikoko beste diru sarreren betearazpideko zergabilketarako elkarlanaren kontratazioa gauzatzeko.

II.- Deialdia, 2011ko martxoaren 21eko GAOean argitaratu zen eta eskakizunak aurkezteko epean ondorengo enpresak aurkeztu ziren: ASESORES LOCALES CONSULTORIA, S.A., COORDINADORA DE GESTION DE INGRESOS, S.A., GESMUNPAL, S.A., SERVICIOS DE COLABORACION INTEGRAL.

III.- Dokumentazioa administratiboa aztertu ondoren, ikusi zen ondorengo enpresen dokumentuak falta zirela:

COORDINADORA DE GESTIÓN DE INGRESOS, S.A.:

- Jarduera gaineko Zergan bajaran ez ematearekiko ziurtagiria.

SERVICIOS DE COLABORAC. INTEGRAL:

- Jarduera gaineko Zergan bajaran ez ematearekiko ziurtagiria.

- Administrazioarekin kontratatzeke debekua ez izatearen aitortpena.

Hori guztia osatzeko bost eguneko epea eman zitzaien eta epe hori igaro eta gero, aipatutako dokumentazioa ekarri zuten.

IV.- 2011ko apirilaren 13ko datarekin, 9,30etan ondorengoak bilduta: Patxi Plazaola, Alkatea, Lurdes Alegria, Kontuhartzailea eta Itziar Arostegi, Idazkaria, B kartazala ireki zen, hau da, "AUTOMATIKOKI BALORATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA" eta lizitatzailerak guztiek eskatutako dokumentazioa aurkeztu zutela egiaztatu zen.

V.- Jarraian aipatzen diren irizpide adjudikazioen arabera, aurkeztutako eskaintzak baloratu ondoren egin den txosten teknikoan oinarrituta, Kontratazio Mahaiak 2011 maiatzaren 6an, 8,30etako deitutako zegoen bileran ondorengo puntuazioa eman zien lizitatzailerari, automatikoki ezin baloratu daitezkeen esleipen-irizpideei buruz:

2. IRIZPIDEA.- MEMORIA (40 Puntu)					
CRITERIO 2.- MEMORIA (40 Puntos)					
	Zerbitzua emateko modua (15) Modo de prestación del servicio (15)	Pertsonal baliabideak M. humanos (10)	Ordutegia Horario (10)	Baliab. materialak M. materiales (5)	TOTAL/ GUZTIRA PUNTUAK
ASESORES LOCALES CONSULTORIA S.A.	-Kontratuaren helburua gainditzen duen memoria, zergabilketa exekutiboa bera baino zerbitzu gehiago jasotzen baititu. -Ez du aipatzen baliabideen egokitasunik IZFE softwarekiko. <hr/> - Memoria que excede el objeto del contrato al contemplar más servicios que los de la recaud. ejecutiva propiamente dicha. - No menciona la adecuación de los medios al software IZFE. 6 puntu / ptos.	Ez dago atxikitutako pertsonalaren izendapen nominatiborik. Taldeko arduraduna eta zergetako teknikaria kontratatzea proposatzen da. <hr/> No identificación nominativa. Propone contratar 1 jefe de equipo y un técnico tributario. 0 puntu/ptos.	Ez du ordutegirik aipatzen <hr/> No menciona horario. 0 ptu./ptos	- 2 PCs - 1 portátil - 2 impresoras - 1 fotocopiadora - 1 escaner 2 puntu/ptos.	8
COORDINADORA DE GESTION DE INGRESOS, S.A.	Memoria egokia bere aplikazio informatikoarekin eman beharreko zerbitzuaren inguruan baina ez du hobekuntza proposamenik egiten baliabideen egokitasunaren inguruan IZFE softwarekiko. <hr/> Memoria adecuada respecto a la prestación del servicio con su aplicación informática, pero sin	EGA duen bulegoko tekniko eta zergekiko arduradun 1 izendatzen da nominatiboki. <hr/> Identificación nominativa de 1 jefe de oficina técnico /tributario con EGA	2 egun asteko. 08:30etik 14:30era <hr/> 2 días/semana De 08:30 a 14:30	- 1 PC - 1 impresora - 1 escaner - 1 pistola lectora (láser)	21

	propuesta de mejora en cuanto a la adecuación de los medios al software IZFE. 10 puntu / ptos.	5 puntu/ptos.	2 ptu./ptos	4 puntu/ptos.	
GESMUNPAL, S.A.	Memoria egokia bere aplikazio informatikoarekin eman beharreko zerbitzuaren inguruan eta hobekuntza proposamena egiten du baliabideen egokitasunaren inguruan IZFE softwarekiko (enpresaren aplikazioan aurretik udal aplikazioan kontabilizazio automatikoa) eta horren ondorioz herritek bere zerga egoeraren berri izan dezakete udal edo foru sareraren bitartez. Memoria adecuada respecto a la prestación del servicio con su aplicación informática y con propuesta de mejora en cuanto a la adecuación de los medios al software IZFE (contabilizac. automat. en la aplicación municipal con carácter previo a la de la empresa) que conlleva que los ciudadanos accedan "on line" a información tributaria propia a través de la propia red municipal o foral. 14 puntu / ptos.	2 pertsonen izendapen nominatiboa: EGA duen arduradun eragilea eta euskara ama hizkuntza bezala duen tekniko bat, zerbitzua estaltzeko bien arteko alternancia konprometizuz, eta beraz momentu oro zerbitzua bermatzen da (bajak, ausentziak...) Identificación nominativa de 2 personas: responsable ejecutivo con EGA y 1 técnico/tributario con euskara como lengua materna, comprometiendo la alternancia de ambas para cubrir el servicio, lo que garantiza asistencia en todo momento (bajas, ausencias,...) 10 puntu/ptos.	Astelehenetik ostiralera 08:30etik 13:30era Lunes a Viernes de 08:30 a 13:30. 10 ptu./ptos	- 1 PC - 1 impresora láser b/n de máx. rendimiento - 1 impresora láser b/n 1 impresora láser color 1 escáner 1 lector de cód. barras 5 ptos.	39
SERVICIOS DE COLABORAC. INTEGRAL	Memoria egokia bere aplikazio informatikoarekin eman beharreko zerbitzuaren inguruan baina ez du hobekuntza proposamenik egiten baliabideen egokitasunaren inguruan IZFE softwarekiko. Memoria adecuada respecto a la prestación del servicio con su aplicación informática, pero sin propuesta de mejora en cuanto a la adecuación de los medios al software IZFE. 10 puntu / ptos.	Administraria ez du identifikatzen nominatiboki. Administraria kontratatzea proposatzen du. Zerbitzura atxikita bezala jartzen du enpresaren pertsonal guztia (zuzendaritza, juridikoak, informatikoak...) eta beraien artean EGA duen aholkulari juridikoa izendatzen du. No identificación nominativa del administrativo. Propone contratar 1 administrativo. Ponen como adscrito al servicio a todo el personal de la empresa (directivos, jurídicos, informáticos...) y entre ellos identifican a 1 asesor jurídico con EGA. 3 puntu/ptos.	Astelehenetik ostiralera 08:30etik 13:30era Lunes a Viernes de 08:30 a 13:30. 10 ptu./ptos	- 1 PC - 1 impresora 1 ptos.	24

**3. IRIZPIDEA.- PROGRAMA INFORMATIKOA (10 Puntu)
CRITERIO 3.- PROGRAMA INFORMÁTICO (10 Puntos)**

**GUZTIRA/TOTAL
PTOS.**

ASESOR. LOCALES CONSULTORIA, S.A.	Aplikazioaren aurkezpen mugatua. Ez du preskripzioaren kontrolerako sistemarik aipatzen. Presentación limitada de la aplicación. No menciona sistema de control de prescripción.	9 ptu./ptos.
COORD. GESTION DE INGRESOS, S.A.	Programa informatico egokia. Programa informático adecuado.	10 ptu./ptos.
GESMUNPAL, S.A.	Programa informatico egokia. Programa informático adecuado.	10 ptu./ptos.
SERVICIOS DE COLABORAC. INTEGRAL	Programa informatico egokia. Programa informático adecuado.	10 ptu./ptos.

Maiatzaren 6an ere, baina 9,00etan, C kartazala (proposamen ekonomikoa) irekitzeko ekintza publikoa burutu zen:

Pleguan ezarritako lizitazio prezioa:

A) Exekutibako errekaudazioa:

Kobratutako kopuruen gaineko %20arte, BEZ kanpo.

B) Berandutza interesak:

Exekutiban kobratutako berandutza interesekiko %50 arte, BEZ kanpo.

Kosta gastuak Udalaren kontura izango dira.

Lizitatzailleek eskainitako prezioak:

ENPRESAK / EMPRESAS	ESKAINITAKO PREZIOA / PRECIO OFERTADO
ASESOR. LOCALES CONSULTORIA, S.A.	10% del principal + 5% de intereses de demora
COORD. DE GESTIÓN DE INGRESOS, S.A.	20% del principal + 0% de intereses de demora
GESMUNPAL, S.A.	17% del principal + 30% de intereses de demora
SERVICIOS DE COLABORAC. INTEGRAL	20% del principio + 0% de intereses de demora

Aurkeztutako proposamen ekonomikoen balorazioa egin ondoren baldintza pleguaren 10. artikulua araberan, lizitatzaille bakoitzak atal honetan lortutako puntuazioa, 50 puntukoa da.

Guztira lortutako puntuazioa ondorengoa da:

	ASESORES LOCALES	COORDINADORA DE GESTIÓN DE INGRESOS, S.A.	GESMUNPAL, S.A.	SERVICIOS DE COLABORACIÓN INTEGRAL
Eskaintza ekonomikoa / Oferta económica	50	50	50	50
Memoria	8	21	39	24
Programa Informátikoa	9	10	10	10
GUZTIRA / TOTAL	67	81	99	84

Horren ondorioz, kontratazio Mahaiaik Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Beasaingo udalaren tributuen eta zuzenbide publikoko beste diru sarreraren betearazpideko zergabilketarako elkarlana, GESMUNPAL, S.A.ri esleitzea, 2011ko martxoaren 14an Gobernu Batzordeak onartutako baldintza administratiboaren eta berak egindako eskaintzaren arabera.

Bigarren. Esleipen prezioa ondorengoa da:

Kudeaketan lortutako bilketa garbiaren %17a eta berandutza interesen %30a.

Hirugarren. Esleipenak hiru urteko iraupena izango du egun indarrean dagoen kontratua amaitzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita (2011-09-04) eta beste urte betez luzatu ahal izango da, baina luzapena espreski erabakiko da.

Laugarren. Aldez aurretik, adjudikaziodunari jakinaraziko zaio hamar laneguneko epean, 4.320 €ko behin betiko fidantza aurkeztu beharko duela.

Abala aurkeztu eta gero, zerbitzua behin betiko esleituko da eta horretarako Alkate jaunari baimena ematen zaio. Jarraian kontratu administratiboa sinatuko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da.

3.- LOKALA EROSTEA. Igartza Oleta, 12an lokala erostea.

Alkatea jaunak proposamenaren berri eman du:

“Gaia: lokala erostea

AURREKARIAK

2009ko otsailaren 9ko datarekin, Igartza Oleta, 12ko lokalaren jabeekin alokairu kontratua sinatu zen, haurtzaindegi erabilera emateko, Udalak aldeaz aurretik egokitzapen obrak eginda. Orain erostea proposatzen da lokal horren erabilera kontsolidatu egin delako.

Local señalado con la letra C de la planta baja. Es el de la izquierda de los que se encuentran a la derecha del portal, según se mira a la fachada principal del edificio, y ocupa una superficie de ciento treinta metros cuadrados.

Linda al Noroeste, acera calle Karobi; Suroeste, portal Nº 12 de Igartza Oleta; Noreste, locales ocupados en la actualidad por Charcutería Salsamendi y Seaska Haurreskola; Sureste porche del edificio Igartza Oleta Nº12.

- *Referencia Catastral*
 - *Municipio: BEASAIN*
 - *FINCA: 64 66 130*

Finca, 4.721 inscrita al Tomo 910, Libro 70, Folio 106, inscripción 1ª del Registro de la Propiedad de Tolosa.

Udal arkitektoak 2011ko maiatzaren 11ko datarekin balorazioarekiko txostena egin du eta 270.455,00 €tan finkatu du.

Eskritura eta erregistroko gastuak nahiz kudeaketakoak Udalaren kontura izatea proposatzen da. Gainbalioaren zerga, aldiz, saltzailearen kontura izango da.

Horren ondorioz, Alkateak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. *Miguel Angel Galdos Idiazabal eta Mª Teresa Imaz Urteaga senar-emaztearena den eta aurrekarietan deskribatu den lokala erostea, BERREHUN ETA HIRUROGIETA HAMAR MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMABOST EUROko (270,455,00 €) prezioan.*

Bigarren. Alkate jaunari baimena ematea, erabaki hau formalizatzeko behar diren dokumentuak sinatzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritziak azaldu dituzte:

PP, EB eta ALKARBIDEk proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE), proposamenarekin ez dagoela ados azaldu du, Udalbatza Osoan azaldutako arrazoiak direla medio, hots:

Haurreskolari eman beharreko behin betiko irtenbidearekiko beste partxe bat besterik ez dela dio eta Udalak planteatutako proposamenarekiko Hezkuntza Ordezkaritzak oraindik erantzunik eman ez duenez, ez dute ulertzen zein presa dagoen lokala erosteko, kontutan izanda patiorako zoru publikoa hipotekatu dela eta Arau Subsidiarioen aldaketa onartzen denean egungo Haurreskola handitu egingo dela. Hori horrela izanda, beraien ustetan proiektu bakarra egin behar zen. Beraz, Hezkuntza Ordezkaritzaren txostena izan bitartean ez dute egokia ikusten proposatzen den lokala erostea.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 5 (EAJ, ALKARBIDE, EB eta PP)

Aurkako botoak: 1 (PSE-EE/PSOE)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

4.- FORU ALDUNDIKO EROSKETA ZENTRALA:

- Erosketa Zentralari atxikitzea.
- Energia elektrikoa kontratazeko espedienteari atxikitzea.

Proposamenaren berri eman ondoren, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

a.- Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako Gipuzkoako Kontratazio Zentralari atxikitzea.

b.- Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako energia elektrikoaren hornikuntza kontratazeko espedienteari atxikitzea.

5.- ETXEBIZITZA LAGATZEA. Oriako Pasealekua, 14 D tarte-oinen dagoen etxebizitza Atzegi elkarteari lagatzea.

2011ko maiatzaren 9ko gizarte-ongizate batzordearen berri eman da: hain zuzen ere, Udalarena den Oriako Pasealekua, 14 D tarte-oinen dagoen etxebizitza, Atzegi elkarteari lagatzearena, jarraian aipatzen diren baldintzekin:

“AURREKARIAK

I.- Beasaingo Udalak ondoren aipatzen den etxebizitzaren lurrazal eskubidearen jabetza du: Beasaingo Oriako Pasealekuan, 14an dagoen eta tarte-oineko D letra duen etxebizitza. Hirurogei eta hiru metro eta hamabi dezimetro karratuko azalera erabilgarria du eta zortzi zenbakia duen banaezin eranskina dauka, zazpi metro eta hamasei dezimetro karratukoa. Tolosako Jabetza Erregistroan inskribatuta dago, 1919 Tomoan, Beasaingo 209 Liburuan, 42. Orrialdean eta 11.399 finka osatzen du. Inskripzioa 2.a

Titulua: Gipuzkoako Foru Aldundiak Beasaingo Udalaren alde 2004ko uztailaren 12an emandako dohaineko besterentze-eskritura.

II.- Beasaingo Udalak deeskribatutako etxebizitza horretaz gain, beste hiru etxebizitza ditu eta etxe babestuak dira. Gertatzen dena da, ordea, Oriako Pasealekuan, 14an dagoen eta tarte-oinen dagoen D letra duen etxebizitza ez dela sekula etxe babestu bezala erabili, demanda ez egoteagatik.

III.- Martxoaren 31ko datarekin ATZEGI Elkarteak Beasaingo Udalari Oriako Pasealekua 14 zk.an duen etxebizitza lagatzea eskatu dio, ezgaitasun intelektuala duten pertsonen zuzendutako laguntza arineko egoitza sortzeko. Era horretan Atzegi Beasainen elkarbizitzako 2 unitate izango litzuke, hau da:

- Bata, Eusko Jaurlaritzak utzitako eta 2.go solairuan 2 etxeak behar bezala komunikatuta; hauek laguntza handiko beharra duten ezgaitasun intelektualeko 8 pertsonen arreta emango lieke.*
- Bestea, Udalari eskatutakoa, laguntza arina behar duten ezgaitasun intelektualeko pertsonen zuzendua.*

Era horretan, Beasainen izandako elkarbizitzako 2 unitateekin, Gipuzkoako Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentua eta Elkartearen artean hitzartu dituzten etxebizitza babestuen sarea osatuko litzateke.

IV.- Egindako eskaera aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak, 2011ko maiatzaren 9an gizarte ongizate batzordeak proposatuta ontzat eman zuen eta 2011ko maiatzaren 13an egindako bileran erabaki zuen aipatutako etxebizitzaren erabilera, Elkarte horri lagatzea.

V.- Bi aldeek kontratatzeko ahalmena elkarri aitortu dute eta horren ondorioz dokumentu hau idatzi dute ondorengo

ESTIPULAZIOEKIN

Lehenik. Beasaingo Udalak, Oria Pasealekuan, 14an dagoen eta tarte-oineko D letra duen etxebizitza eta bere eranskinaren erabilera, ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA PRO SUBNORMALES, GIPUZKOAKO ATZERATUEN ALDEKO ELKARTEAri (ATZEGI) lagatzen dio, laguntza arina behar duten ezgaitasun intelektualeko pertsoneri zuzendua.

Bigarren. Lagapena baldintza hauekin egiten da:

1.- Epea: lagapenaren epea, bost urtekoa izango da dokumentu hau sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, baina beti ere hitzartutako baldintzak eta erabilera mantentzen bada. Bestalde, Udalak, aldez aurretik ladapendunari entzunda, lagapen erabakia bertan behera utzi dezake, kalte-ordainik ordaindu gabe.

Bi aldeek ados jarri ezker, epea luzatzea egongo da, baina beti ere luzapen erabakia espreski hartuko da.

2.- Gastuak: etxebizitzaren mantentze gastuak, hau da, argia, ura, gasa, telefonoa, zaborra, estolderia, ondasun higiezin gaineko zerga, jabetza erkidegoko gastuak eta konponketa arruntak, lagapendunaren kontura izango dira.

3.- Altzariak eta etxeko tresnak: Udalak ATZEGIri etxebizitza entregatzen dio altzariekin. Dena dela entitate hau arduratuko da, behar diren etxeko tresnak eta erabileraren ondorioz hondatzen direnak erostez eta ordaintzeaz.

4.- Erantzukizun zibila. Lagapen-kontratuaren epealdirako ATZEGIak aseguruia kontratatuko du, hirugarren pertsonetik kalteaz erantzuteaz gain, etxebizitzan sorten diren ezbeharrak ere estaliko duena. Dokumentu hau sinatzerakoan, polizaren kopia entregatuko da.

5.- Urteko txostena. Lagapendunak, Udalaren gizarte-ongizate departamentuan, urtean zehar lagatako etxebizitzari ematen zaion erabilerari buruzko txostena aurkeztuko du.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

6.- ESKAERA ETA GALDERAK.

Eskaera eta galderan atalean, ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean bilera, goizeko hamaiketan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.